

UPV/EHUⁿ IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2024)
III eta IV MODALITATEAK

Onartu eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

UPV/EHUⁿ IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2024.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda eta lehen fasearen emaitzak IAEaren webgunean argitaratu ondoren, eta deialdiaren 7.3, Ebaluazio prozesua, oinarriarekin bat:

Bigarren fasean, 7.4 oinarrian aurkezten den taulan ezarritako 7. eta 8. irizpideak ebaluatuko dira, guztira 35 puntu direla. Irizpide horien ebaluazioa kanpo prozesu baten bidez egingo da, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren edo antzeko ezaugarriak dituen kanpoko agentziaren bidez.

Bigarren fasera igaro diren eskabideen puntuazio osoa lortzeko, eskatzaile bakoitzari lehenengo fasean egindako ebaluazioaren guztizkoa eta bigarren fasean lortutako ebaluazioaren guztizkoa batuko zaizkio. Ebaluazioaren emaitzak Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako batzordeari (IGBB) bidaliko zaizki o; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, behin-behineko ebazpena eman eta argitara dezan.

Eskabideak ebaluatzeko tramitea bukatu ondoren, IGBBk, 2025eko otsailaren 25an egindako bileran, esleipenaren proposamena egin zuen, behin-behineko ebazpena eman eta argitaratzeko. Horrenbestez, IAEk ERABAKI DU bere webgunean argitaratzea **emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena; II. Fasea – III eta IV Modalitateak** eranskinean jasota dagoena.

Behin-behinean EMANDAKO eskaerak jaso dituzten pertsonak **2025eko otsailaren 27etik martxoaren 12ra (biak barne)** izango dute kontratua onartzeko edo uko egiteko. Horri adierazteko, mezu elektronikoa idatzi beharko dute helbide honetara solicitudes-pif.dgi@ehu.eus.

Epe hori iraganik, **espresuki onartu** egiten ez bada, eskabideak **atzera egin direla ulertuko da**.

Behin-behinean eskaera UKATUA izan dutenei dagokienez, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte lehenago aipatutako epe berean: **2025eko otsailaren 27etik martxoaren 12ra (biak barne)**.

Epe horretan bertan, eskatzaileek euren eskabideari dagokion ebaluazio txosten osoa eskatu ahalko dute solicitudes-pif.dgi@ehu.eus helbidera idatzita.

Alegazioak honako bide hauetako batetik aurkeztu beharko dira:

- UPV/EHUren egoitza elektronikoa (<https://egoitza.ehu.eus>) ezarritako epean aurkeztu beharko da, eta "ESKATU" eremuan "2025 azpiegitura" erreferentzia eta "Ikerketa errektoreordetza – UPV/EHUko ikerketa-deialdiak (U02000256)" unitatea adierazi beharko dira.
- Posta bulegoetan, "Zure dokumentuak berehala erregistratu eta herrialdeko administrazio publikoetara bidaltzeko" ORVE zerbitzuaren bidez. "Giza baliabideen ikerketa kudeatzea (U02000381)" unitate izapidegilearen bidez bidaliko du, "PREDOC 2024" erreferentziarekin.
- Sektore publikoa osatzen duen edozein erakundetako erregistroetarako arreta bulegoetan. "Giza baliabideen ikerketa kudeatzea (U02000381)" unitate izapidegilearen bidez bidaliko du, "PREDOC 2024" erreferentziarekin.

Leioan, 2025eko otsailaren 26an.